

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da Bortzirietan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntza emateko modua arautzea.

2. Diru laguntzaren baldintzak. Bortzirietan 2018. urtean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu edo berriro duten eragileei zuzenduak dira laguntza hauek. Diru laguntza jasotzeko beharrezkoa da eragile eskatzaileek Bai Euskarari Elkarteari urteko faktura ordaindu izatea.

3. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30era artekoa izanen da.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako laguntza eskuratzeko interesatuek eskaera egin behar dute, eranskinean azaltzen den eredia erabiliz. Eskaera orriarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- IFKaren fotokopia.
- Bai Euskarari elkarteari 2018an ordaindutako fakturaren fotokopia.
- Fakturaren ordainagiria.

Dokumentazioa Bortzirietako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantzua) aurkeztu behar dute, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan.

5. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

6. Ebazpena. Deialdi honetako diru laguntzak mankomunitateko lehendakariak ebatziko ditu, euskara teknikariaren txostena ikusita. Ebazpen hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

7. Diru laguntzaren zenbatekoa. Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak jasoko duen diru laguntza 42,50 eurokoa izanen da; hau da, Bai Euskarari Elkarrean ziurtagiriarengatik ezarria duen oinarritzko prezioaren % 50.

Halere, eskaera guztiak batu eta mankomunitatearen 2018ko aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guztien artean banatuko da, modu berdinean.

8. Diru laguntzaren ordainketa. Diru laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, interesatuak eskaera orrian zehaztutako kontu korrante zenbakira eginiko banku transferentzia bidez.

9. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

10. Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

11. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Arantzan, 2018ko ekainaren 19an
Mankomunitateko lehendakaria
Mentxu Peña Lizarazu



**Bortziritan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntzak:
eskaera orria**

 **Eskatzaileari buruzko datuak**

Enpresa/Elkartea	
Arduraduna	
Helbidea	
P.K.-Herria	
Telefono zenbakia	
E-posta	
Bankuko kontuaren zenbakia	IBAN _____

 **Azalpena**

- Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dugu.
- Ziurtagiri horrengatik dagokiguna ordaindu diogu Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteari. **Faktura eta ordainagiria bidaltzen ditugu**, eskaera orriarekin batera.
- Bortziritako Euskara Mankomunitateak ziurtagiriaren gastuengatik 42,50 euroko laguntza ematen du, eskaera-orri hau 2018ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztuz gero.
- **IFZ (NIF) txartelaren kopia bidaltzen dugu**, eskaera orri honekin batera.

 **Eskaera**

- Baldintzak betetzen ditugunez gero, mankomunitateak ziurtagiria eskuratzeagatik dagokidan laguntza eman diezagula.

(Herria) _____, 2018ko _____aren ___a

Sinatua,

Mentxu Peña Lizarazu.-
Bortziritako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.-
Herriko Plaza 7, 2.-
31790 Arantza.-